# Ertzaintzak lau gazte atxilotu ditu Bizkaian, kale borroka ekintzekin lotuz

▶ Larrea eta Lupianez preso hartu zituen joan den martxoan Polizia espainiarrak

**Ertzaintzak Zunbeltz Larrea, Gorka Lupianez, Aitzol Euba eta Andoni Beroiz gazteak atxilotu zituen atzo Durangon, Zornotzan eta Galdakaon, kale borroka ekintzetan parte hartzea leporatuta. Espainiar Entzutegiko 3. Epaitegiko epaile Teresa Palaciosek agindu zuen polizia operazioa. Atzokoa kontatuta, epaitegi horrek berak aginduta hiru alditan atxilotu dute Larrea, eta birritan Lupianez. Gazte biek torturak salatu zituzten aurreko atxiloketen ondoren.**

A.B.-M.J.
**DURANGO**

Ertzaintzaren eskuetan daude atzo atxiloturiko Zunbeltz Larrea, Gorka Lupianez, Aitzol Euba eta Andoni Beroiz. «Hiru egun edo bost inkomunikaturik egon daitezkeela esan digute, nora eraman dituzten esan barik», adierazi zuten lehenengo bien senideek Durangon atxiloketak egin ak zirenean.

Durangon, Larrearen eta Lupianezen etxeetan 8.45ean sartu ziren. «Bortizki sartu dira, eta miatzen ari zirela eraman egin dute», azaldu zion GARAri Larrearen sendiak. Lupianez, aldiz, araketa bukatu arte etxean izan zen. «Teresa Palacios epailearen agindua zela esan eta Getxoko operazioarekin lotu dute; kale borrokarekin zerikusia duela esan digute», agertu zuten senitartekoek.

Bien etxeak «hankaz gora» geratu ei ziren miaketen ostean: «Gela guztiak arakatu dituzte». Miaketak 11.30 aldera bukatu ziren eta diskete batzuk, «aitarenak gehienak», musika CDak eta «guk idatzitako poema liburua» eraman zituzten Lupianezen etxetik. Gaztea etxetik atera zutenean, «300 lagun zeuden zain kalean, eta tentsio uneak izan dira, ertzainen jarrera dela eta», azaldu zuten.

13.30 aldera, Aitzol Euba atxilotu zuen Ertzaintzak Zornotzan, eta etxea miatu zuen. Bertatik «dokumentazioa» eraman zutela adierazi zuten agentziek.

Polizia autonomikoa 20.00ak aldera joan zen Andoni Beroizen Galdakaoko etxera. 22.30ak arte etxebizitza miatzen jardun zuen, eta ordu horretan atxilotuta eraman zuten gaztea. Bizilagunek egunkari honi adierazi ziotenez, «telebista kamerak egon dira inguruan miaketak iraun duen artean».

Teresa Palaciosek zuzentzen duen espainiar Entzutegiko 3. Epaitegiak Larrea eta Lupianez atxilotzeko agindua eman zuen martxoan. Espainiar Poliziak zazpi gazte atxilotu zituen kale borrokarekin zerikusia zutela leporatuta. Epailearen aurretik pasatu zirenean, Larreak eta Lupianezek torturak salatu zituzten. Lehena fidantzapean libre geratu zen eta bigarrenaren kontra ez zuten neurririk hartu. Hilabete lehenago, Ertzaintzak atxilotu zuen Larrea, «terrorismoa goraipatzea» leporatuz. Epaitegi berean deklaratu ostean, libre geratu zen.

Javier Balza Barne sailburuak adierazi zuenez, atzoko operazioa «jazarpen indarkeriaren aurkako beste urrats bat», eta honakoa gehitu zuen: «Herri honetako askatasunen alde Ertzaintza egiten ari den lanaren beste froga bat da hau».

Askatasunak gazteak libre uzteko eskaera egin zuen, «bide errepresiboak ez baitu ekarri positiborik». Eskaera horrekin berarekin, 400 bat lagun atera ziren manifestazioan Durangon eguerdian, baina Ertzaintzak desegin egin zuen. Iluntzean, Zornotzan 250 mobilizatu ziren.



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

**Durangon atxilotutako gazteetako bat, Ertzaintzak bere etxetik atera zuenean.**

### POLIZIAREN JAZARPENA

***Durangon atxilotutakoen senideek adierazi zutenez, «ertzainek gelditu egiten zituzten kalean eta 'kontuz ibili' eta halakoak esaten zizkieten. Martxotik hona izan da, espainiar Poliziak atxilotu eta aske geratu zirenetik».***

## Denuncia por «amenazas y detención ilegal»

GARA
**DURANGO**

«Me aseguraron que si no colaboraba con ellos tenían medios para relacionarme con el 'comando Bizkaia'. Me amenazaron con mi familia. Me dijeron que les harían daño, que conseguirían que echaran a mi padre del trabajo», relató Gorka Lupianez en diciembre pasado, días después de que presentara una denuncia judicial por «amenazas y detención ilegal».

El joven reveló que fue trasladado al monte Bitaño por dos personas que se identificaron como ertzainas. Allí «me amenazaron con hacer daño a mi familia si no colaboraba con ellos».

El suceso marcó la vida cotidiana del joven y su familia. «Te crea una inseguridad tremenda, porque sabes que pueden volver a hacer algo así cuando quieran. La familia también se preocupa», explicó a GARA en una entrevista realizada pocos días después de los hechos. Denunció entonces que no se trataba de un episodio aislado en Durango, ya que «también lo han sufrido otros jóvenes». Defendió que «la persecución contra los jóvenes debe acabar».

Familiares señalaron que «la denuncia se mantiene».

## Gesto por la Paz y CCOO piden la libertad de Barandalla

GARA
**BILBO**

La coordinadora Gesto por la Paz y CCOO de Nafarroa reclamaron ayer la excarcelación de Bautista Barandalla, preso político que sufre una colitis ulcerosa crónica.

Gesto por la Paz subrayó en un comunicado que la estancia en prisión «agrava notablemente» la evolución de la enfermedad del prisionero etxarriarra, quien desde que en marzo fuera sometido a la extirpación del intestino grueso casi en su totalidad «sufre continuos traslados entre la cárcel y el hospital».

Consideró que el artículo 92 «debería aplicarse con criterios interpretativos amplios, basados en la generosidad y en principios humanitarios por ser una demanda justamente fundamentada y ampliamente respaldada por la sociedad».

También CCOO de Nafarroa se ha pronunciado a favor de la puesta en libertad del vecino de Etxarri-Aranatz. En una nota remitida a Etxerat, el sindicato señala que «siempre hemos defendido el Estado de Derecho y la legitimidad de las leyes que de él se emanan. Analizada la situación de Bautista Barandalla, solicitamos el cumplimiento del artículo 92 del Código Penal».

Esta demanda se suma a la ya expresada por los sindicatos ELA, LAB, EHNE, ESK, CGT y STEE-EILAS.

**Protestas en las cárceles**

La exigencia de la puesta en libertad de Bautista Barandalla también es reclamada en las prisiones. Etxerat informó ayer de que se han cumplido ya 144 días desde que en Soto del Real se iniciara una huelga de hambre rotativa. En Aranjuez son ya 79 los días de ayuno rotativo y en Navalcarnero 46.

En Brieva, dos presos se mantendrán en huelga de hambre durante el próximo fin de semana, mientras que en Martutene e Iruñea están realizando encierros. En Badajoz, visten camisetas en favor de Barandalla.